

Itsas Presondegia

Jon-Mirena Landa

EHUko Giza eskubide eta Botere Publikoaren Unesco Katedraren Zuzendaria

Pelikula bat estreinatu zen 2013an Mikael Håfström zine-zuzendariak gidaturik: *Escape Plan* (Ihesaldirako plana). Horko protagonistetako bat aditua zen, hain zuzen ere, segurtasun handiko espetxeetatik alde egiten. Eta horregatik kartzela berezi batera, alde egin ezinezko omen zenera-edo, bidaliko dute: alegia, itsaso zabalean nabigatzen ari den presondegi-
ra.

Pelikularen kalitatea gorabehera, fikziozko (eta ekintza) generoan kokatzen da. Baina askotan gertatzen den bezala, errealtateak fikzioa gainditzen du. Gizarte post-modernotan sarri ez dakizkigu bereizten egia eta «errealitate» birtuala. Horrelako itsas-presondegiara norbait sartuz gero, ordea, arinetan jabetuko litzateke errealtate petralaz, batere birtuala ez denaz!

Halako itsas-presondegia guztiz proportzioz kanpokoa dela antzemateko atxiloketa da gakoa. Atxiloketa mekanismo konplexua da, erabilera askotakoa. Atxiloketa gehienetan delitu bat egin izanarekin lotzen dugu. Norbaitek delitu bat egin du, delitu larria, eta epaileak atxilotzeko agindua ematen du, ahalik eta lasterren bere aurrera azaldu eta deklarazioa hartzeko. Epaile aurrean berriro ere –ez beti– erabakiko da ea epailetan irauten duen bitartean atxiloketa –behin-behinekota– mantendu behar ote den, ez zigor gisa, baizik eta akusatuak epailetatik ihes

egin ez dezan: alegia, kautela-neurri bezala epaiketa ahalbidetzeko. Eta bukaeran delitu larria denean kartzelaldi zigorra ezar liteke, gehienetan bi urte baino luzeagoa ez denean betearaziko ez dena: hau da, bi urteko kartzela-zigorra behin betiko ezarri arren, espetetik pasatu ez eta zigorra suspenditurik gelditu liteke, mundu librean baldintza batzuen menpe kondenatuak zigorra beteko duelarik.

Ikusten denez, atxiloketa delituarekin lotuta dagoenean ez beti, baizik eta fase bakoitza (likerketa hasteko, epaiketa bidean dela, zigorra ezarri orduko...) larritasunaren arabera aktibatzen da edo ez; izan ere, pertsonaren askatasuna ez baita (hainbeste) ukitu behar ezta delitu (susmo) argia dagoenean ere.

Baina atxiloketa beste egoera askotan ere aurreikusita dago: esaterako, norbaitek buru-nahaste larria duenean eta barneratze psikiatrikoa halabeharrezkoa bada. Kasu horretan, adibidez, ez da delitua egon behar. Ez da askatasunaz gabetzen delitu bat egin delako. Pertsonaren buru-osasuna eta bere arriskugarritasuna (berarentzat eta beste batzuentzat) gakoa da kasuotan leku itxi batean sartu behar ote den erabakitzeke. «Atxiloketak» edo «barneratzeak» –mugitzeko askatasuna galtzeak alegia– beste logika bat dauka kasuotan, eta horrek baldintzatu behar ditu lekuaren inguruabarrak (erietxe eta ez kartzela) eta iraupena edo betetzeko moduak, besteak beste.

Itsas-presondegiara bueltatuz, hor beste kasuak daude jokoan. Beste logika bat. Herri batera, kasu honetan Britania Handira, «legez kontra» edota asilo eske sartu nahi direnen kasua. Zoritzarrez ohituta gaude atzerriartasun legeak direla medio, etorkinak delitugile bezala ikustera. Hortan eskuin-

muturrak zalantzarik gabe bere «ekarpena» egiten dihardu: kanpotarrak –txi-roak badira!– delitugileak omen direlako. Baina eskuin-muturra ez ezik, atzerriartasun legearen logikak berak ere horretara eramaten gaitu, asilo-eskubidea bera desagertzearaino. Teoriaz lehenik eskatzaileari entzun beharko genioke asilo-eskubidea ote duen jakiteko. Europako estatuak (Britania Handia, Espainia, Frantzia...), aitzitik, giza eskubideen bermatzaile-estatusa abandonaturik, ate zaintzaile eta «iragarle» bilakatzen dira eta eskatzaileek ahoa ireki aurretik «badakite» legez kanpo ari ei direla herrira sartzen ahalgintzen. Horretan abusu estrukturala dago, asilo eskubidea indargabetze eta ukitze aldera. Baina demagun hala dela, alegia, norbait herrira sartzen dela legezko bide jarraitu gabe. Hori berez ez da delitua, gehienez larritasun gutxiagoko arau-hauste administratiboa baizik. Denok dakigunez, ez da gauza berbera txarto aparkatzea eta deli-

tu bat egitea: eta txarto aparkatzeagatik inor ez genuke kartzelan sartuko, ezta? Ba etorkinak paperik ez dutela atxilotuak direnean ez dira delitugile, eta horren ondorioz ez dute kartzela-zigorrik. Normalean estatuek nahi dutena da etorkinak beraien herrialdetara itzultzea, kanporatzea, eta hori egin ahal izateko atxilotu eta kanporatu bitartean nonbaiten «mantendu» behar dituzte. Nonbait hori ezin da kartzela bat izan eta are gutxiago itsas-kartzela.

Artikulu honen hasieran aipatutako pelikularek hastapenean zera esaten diote protagonistari kartzela-itsasontzira heldu bezain laster: «Amnesty International-ek ez daki kartzela hau ere existitzen denik!». Nolabait, itsas-espetxe hura kartzelarik gogorrena bezala aurkezten da. Leku itxietan barneratuen eskubideak errespetatzea zaila bada, are zailagoa zalantzarik gabe itsaso gaineko azpiegitura batean. Kontua ez da. Ingalaterrako autoritateetako batzuek esan duten moduan, «hotelean» ala «itsasoan». Kontua da nola tratatu behar diren etorkinak demokrazia batean, gutxieneko duintasuna errespetatuz. Kontua da pertsonen baliota eta haiek tratatzeko modua. Kontua da noraino sinisten dugun giza-eskubide funtsezkoak denentzat –eta ez gutxi batzuentzat– direla.

Kasu honetan, urrats bat gehiago egin da etorkinak deabru bihurtze-prozesuan. Giza-talde batak deabrutzen hasten garenean maldan behera goaz. Gogora dezagun estatuak eskubide-mailaketa egiten hasten direnean, hiritar on eta txarren artean ezberdintzen hasten direnean –kasu honetan dirua aurreztu nahian aitzakia–, demokrazia bera arriskuan jartzen dela. Eta logika horri ekinez gero, zein izango ote da ba hurrengo urratsa?

Kasu honetan, urrats bat gehiago egin da etorkinak deabru bihurtze-prozesuan

Joseba Intxausti

Pako Sudepe

Idazlea

Ezer baino lehen, Joseba Intxausti gizabanakoak nigan utzitako arrasto atsegin eta begirunezkoa gogoratu nahi nuke. Hiruzpalau aldiz izan naiz haren Donostiako Berioko etxean, eta beti irribarrez eta abegi onez hartu izan nau. Euskarazko kultur gaiak izan ohi genituen mintzagai. Hasiera batean, iragan mendeko 50eko hamarkadan, Guatemalan abiatu eta Baionan amaitu zen *Euzko-Gogoa*-z, Jokin Zaitzegiz, Andima Ibinagabeitiak, Orizex...;

eta aurrerago, Katalunia eta Euskal Herriko kultur giro ezberdinaz –ondo ezagutzen zuen Kataluniako kultur giroa, Historia han ikasi zuenez–, gurearen ahuleziak katalanarekiko.

Gogoan dut ikustaldi horietako batean nola liburutegia ikustera gonbidatu ninduen, eta nola txunditurik geratu nintzen: bi mila liburu inguru, esan zidanez, oso txukun antolatua eta paratuak etxearen beheko sotoan. Esan nion inbidia ematen zidala. Irribarre egin zidan!

Batez ere euskararen historia soziala eta Euskal Herriko elizaren historia izan ditu aztergai. Baina nik baino hobeto beste hainbat lagunek azalduko dute haren kultur lanaren berri. 50eko hamarkadaz tesia egin nuenean, honela idatzi nuen Josebaz:

«Gurean, erabat harturik, iragan mendeko 60ko hamarkadaren distirak itzali egin du 50eko hamarkadako literatur ekoizpena. Hamarkada haren garrantzia begiz jotzen aurrendari Joseba Intxausti izan genuen. 70eko hamarkadaren amaiera aldera bi artikulu esanguratsu idatzi baitzituen *Euzko-Gogoa* aldizkariak, eta hori lehen mugarrira jartzea bezala izan zen hamarkada haren berreskurapenean».

Jakin aldizkaria *Euzko-Gogoa*-ren uberran jaio zen 1956an, euskara hutsezko lehen kultur-aldizkari haren segidan bezala, baina Joseba Intxaustik biraketa funtsezkoa eman zion 1958tik 1964ra –Txillardegik- eta eraginda, besteak beste–, zuzendari izan zen garaian –irakur bedi Josebaren *Jakin* (1956), *aurreko eta berehalako testuinguruan*–;

eta, bestalde, Joxe Azurmendi euskaltzalezko puntuan pertsona giltzarria izan genuen, Joxek berak kontaktu izan duenez.

Ezin ahaztu halaber, euskara berritu eta mundu modernora egokitzeko helburuz sorturiko UZEIren sortzailea izan zela.

Azkenengo aldiz Hernanin ikusi nuen, Armeniari buruzko hitzaldi bat egitera etorri zenean Biteri kultur-etxera. Andrea zuen armeniarra. Hainbat jakingarri eman zizkigun armeniar herri zafratuaz.

Doluminak ematen dizkiet bihotz-bihotzez andreari, eta ahaideei, eta bizirik gaude denok *Jakin* webgunean dugu aukera hark utzi digun ondareaz (500 dokumentutik gora) jabetzen eta baliatzen joateko. Milesker Joseba!

Goian bego!